



ASOCIACION GUIPUZCOANA DE AUTISMO

GAUTENA


GIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA



GAUTENA

AUKERAK SORTZEN

Jarduera Txostena
2017



AURKEZPENA

2

1. ZERBITZUAK

4

DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU ZERBITZUA

4

HEZKUNTZA ZERBITZUA

5

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

6

ETXE BIZITZA ZERBITZUA

8

FAMILIEI LAGUNTZEKO ETA ELKARTZE EKINTZAKO ZERBITZUA

10

2. 2017. URTEKO MUGARRIAK

13

3. URTEKO KONTUAK

26

3.1. EGOERAREN BALANTZEA

26

3.2. EMAITZEN KONTUA

27



Atsegin handiz, ilusioz eta erronkaz beteriko 2017ko memoria aurkezten dizuegu. Ilusioz betea izan da, proiektu berriak egin ahal izan ditugulako (etxebizitzan eta hezkuntzan, batez ere), eta horrek berretsi egin duelako administrazioek gudan duten konfiantza. Erronkaz betea, berriz, gure profesional estrategikoenetako batzuetan belaunaldi-aldaketari ekin diogulako. Hala, 2017ko ekitaldian aldaketak egin ditugu zuzendari, zuzendari mediko eta hezkuntza-arduradunaren karguetan, eta aldaketa gure erakundearen balioen eta indarguneen arabera kudeatu dugu.

Ekitaldi hau 2016-2019 aldirako Plan Estrategikoko bigarrena izan da. Planaren ildo estrategikoetarik bat da AENa duten pertsonen erantzuteko gaitasuna areagotzea, plaza eta laguntza-lerro berriak irekitzea eta antolaketa garatzea. Zentzu horretan, ekitaldiko gertaera nagusi hauek nabarmendu ditzakegu:

Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzuan, kasu kopuruak gora egiten jarraitzen du urterik urte, eta Osasun Sailari zerbitzu hobea eskaini ahal izateko baliabideak eskatzen jarraitu beharko dugu.

Hezkuntzan, 2017-2018ko ikasturtean 19. ikasgela egonkorra ireki dugu Andoaingo Ondarreta ikastolan. Ikasgela horrekin, 98 ikasle dauzkagu gaur egun ohiko ikastetxe arruntetako ikasgela egonkorretan. Halaber, eskola-zentroekin eta Berritzeguneekin koordinatuta gaude, bai AENaren diagnostikoa eta eskolatze arrunta duten ikasleei arreta emateko, bai irakasleak gure kolektiboaren inguruko gai espezifikotan prestatzeko.

Eguneko zentzoei dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuta ditugun 110 plaza guztiak okupatuta amaitu dugu ekitaldia. Gaur egun, edukiera-muga

gainditzear daude gure espazioak, eta espazio berriak lortzea izango da 2018rako erronketako bat.

Etxebizitza Zerbitzuak ere plazak areagotu ditu; zehazki, zortzi pertsona berri sartu dira, eta Berioko instalazioetan kokatu ditugu. Administrazioarekin lanean dihardugu, instalazioa irekita egongo den egunen kopurua handitzen jarraitu ahal izateko, mesede egiten baitie horrek erabiltzaileei.

Familiei Laguntzeko eta Elkartzeko Ekintzako Zerbitzuaren barruan, Aldi Baterako Egonaldi Zerbitzuaribabes ofizialeko bi etxebizitza lagatzea lortu dugu; Pagolan daude. Era berean, administrazioaren laguntzari esker, aisialdi eta gizarte-partaidetzako profesional bat enplegatu ahal izan dugu, lanaldi partzialean.

Sentsibilizazio-konpromisoen barruan, urtero autismoaren inguruan egiten dugun mundu-mailako sentsibilizazio-eguna nabarmendu nahi dugu, gizartean eragin handia izaten baitu. Urduinduz du izena ekimenak, eta aurten Zarautzen egin da, gure martxa urdinak partaide asko bilduta. Bestalde, DeskonetApp aplikazioaren aurkezpena aipatu behar dugu atal honetan, Markel Olano diputatu nagusiarekin batera egin zena. Autismoa duten pertsonekin elkarlanean diseinatu da aplikazioa, mugikorraren erabilera arduratsua sustatzeko xedez.

2017an, Gautenak bere jardueraren oinarri diren zeharkako ildoetan egin du ahalegin nagusia. Hala, kalitateari dagokionez, gogor egin dugu lan, Plena Inclusión elkartearen kalitate-ereduaren ezarpena finkatze aldera. Eskubideen eta Bizi-kalitatearen ildoan, aldiz, Bizi Proiektua aplikazio informatikoa diseinatzeko hasi gara. Eta, I+G+B ildoan, diruz lagundu dugu ASDEU proiektua, dohaintza-emaile partikular baten ekarpenaren bidez. Proiektu horretan, 7 eta 9 urte arteko ia 10.000 haur gipuzkoar aztertu



dira, eta, horri esker, AENak gure lurraldean duen prebalentzia-maila ezagutuko dugu.

Elkartearen jarduera instituzionalak ere aipamena merezi du aurkezpen honetan. Aktibo dauzkagu harreman instituzionalen ildoak, hala administrazio publikoarekin (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza), nola erkidego-, estatu- eta

Europa-mailako beste elkarte eta federakunde batzuekin, eta, halaber, harremana daukagu gurekin lankidetzan aritu nahi duten erakunde pribatuekin ere. Azken atal honetan, aipatzekoa da El Diario Vasconen Gabonetako kontzertua, hedapen eta irismen handia eduki baitu. 2017an egin da, Gautenaren omenez, eta, aurretik idatzizko



prentsan nahiz telebistan agertu denez, gure sentsibilizazio-mezua ozen entzuteko plataforma bikaina izan da.

Beste urte batez, aurreko guztia ahalbidetzen duten guztiei eskerrik beroena emanaz amaitu behar dut. Beraz, eskerrik asko gure profesional eta boluntario guztiei, eta, bereziki, elkarteak utzi duten profesional guztiei, lanean aritu diren urteengatik eta aldaketa-prozesuetan eman duten laguntza

handiagatik; eskerrik asko, era berean, AENA duten pertsonen familiei, administrazio publikoei (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta udalak) eta laguntzen diguten bestelako agentziei, baita elkartearen xedeetan aurrera egiten jarraitzeko asmoz gurekin elkarlanean aritzen diren partikular eta enpresa guztiei ere.

Horiei guztiei, eskerrik asko bihotz-bihotzez!



I. Zerbitzuak

DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU ZERBITZUA

■ Gipuzkoako Osasun Ordezkaritzak haurren eta gazteen laguntza psikiatrikoko zerbitzu anbulatorioak dauzka kontratatuta Gautenarekin, garapenaren nahasmendu orokortuak dituzten Gipuzkoako osasun-arloko pazienteentzat. Itun horren esparruan, Gautenak Donostiako (Aiete), Eibarko, Zumarragako eta Arrasateko bulegoetan ematen du zerbitzua. Itunak 18 urte arteko pertsonak estaltzen ditu, eta, 2017an, Gautenak 504 paziente artatu ditu

itunaren barruan. Horietatik, 108 azken urtean jarri dira lehen aldiz gurekin harremanetan. Aurreko ekitaldietako zifren antzekoa da.

■ Irailean, bi espezialitateetan (haurrena/gazteena eta helduena) zatitu zen Psikiatria Zerbitzua, zerbitzu espezializatuagoa eskaintzeko xedez, sortzen doazen premia berriekin bat. Psikologo taldea ez da aldatu. Hala, gaur egun, sei psikologok eta lanaldi partzialean jarduten duten bi psikiatrak osatzen dute talde klinikoa, eta tratamendu anbulatorioa, gela egon-




korrekiko koordinazioa eta eguneko zentroetako eta etxebizitzetako esku-hartzea jorratzen dituzte.

■ Ikerketari dagokionez, taldeak hainbat lankidetzaz-ildo eduki ditu. Nabarmenena izan da AENak Gipuzkoan duen prebalentziari buruzko ASDEU ikerketa, Europar inoiz egin den prebalentzia-ikerketa handienaren barnean dagoena. Ikerketa horretan, 7 eta 9 urte arteko bederatzi milatik gora haur gipuzkoarengana iritsi ahal izan gara, gutzitzkoaren bi herenengana ia, eta bertako

nahiz inguruetako kasu kopuruari buruzko datuak eskuratu ahal izan ditugu.

■ Prestakuntzaren eremuan, talde klinikoko hainbat profesionalak hartu dute parte Manresan egindako portaeraren arazoei buruzko kongresuan, eta hezkuntzaren nahiz osasun mentalaren arloko profesionalen taldeek prestakuntza jaso dute. Era berean, master amaierako praktiketako ikasleak hartu ditugu, eta esku-hartzeko irizpideak zein gure kolektiboaren premiak ezagutzeko aukera eduki dute.



HEZKUNTZA ZERBITZUA

- Hezkuntza Zerbitzuak 19. ikasgela egonkorra ireki du 2017-2018ko ikasturtean, Andoaingo Ondarreta ikastolan. Hezkuntza-sarea probintzia osora hedatzeko premisari eusten diogu, gure ikasleei hurbiltasun-zerbitzua emate aldera.
- Ikasgela hori irekita, 3 eta 21 urte arteko 98 ikasleri laguntzen diegu. Ikasgela guztiak hezkuntza-zentro arruntetan daude; Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Hala, gure neska-mutilen inklusio aukerak maximizatzen ditugu.
- Zerbitzuan 87 profesionalak egiten dute lan (irakasleak, hezitzaileak, heziketa-laguntzako espezialistak eta zaintzaileak), eta guztiak daude AENA duten edo antzeko laguntza-premiak dituzten ikasleekin lan egiteko espezializatuta. Ikasturte honetan, Ane Bermejo bihurtu da Hezkuntzako arduraduna, Marijo Gonzalezek eszedentzia eskatu ostean. Anek 23 urte daramatza gure ikasgeletan irakasle, eta, beraz, lehen eskutik ezagutzen ditu zerbitzuaren ezaugarriak eta lehentasunak.
- Harreman ona daukagu Hezkuntza Sailarekin, gure ikasgelak kokatuta dauden bost lurraldeetako Berritzeguneeekin eta, era berean, Berrikuntza Pedagogikoko Sailarekin. Horiekin lan egitea funtsezkoa da, bai ikasleen orientazioari eta jarraipenari dagokienez, bai elkarrekin jarduteko irizpideak eta ildoak finkatzeari dagokionez.
- Ikasturtearen bigarren erdian, komunikazioa hobetzeko taldean egiten ari den lanarekin bat, profesional batzuek COM-FOR probari (komunikazioaren aitzindariak) buruzko prestakuntza jaso dute. Proba hori ikasgeletan martxan jarriko dugu, autismoan eta beste komunikazio-zailtasun batzuetan komunikazioa areagotzeko sistemen premiarik dagoen ebaluatzeko.
- Zentro arruntetako ikasgela egonkorak plataforma ezin hobekak dira ikasleak gure kolektiboarekin sentsibilizatzea lantzeko. Zentroetako zuzendaritza-taldeen egiten duten planifikazioari eta irakasleen lanari esker (Gautenaren ikasgeletako profesionalena nahiz ikastetxeetako profesionalena), gizarteratzeko eta sentsibilizatzeko jardunbide egokiak identifika ditzakegu, eta, horrela, gero eta jardunbide egoki gehiago abiarazi: alderantzizko integrazio-programak, sentsibilizazio-jarduerak, autismoaren nazioarteko egunaren inguruko jarduerak... Horrek guztiak gure kolektiboa ikusgarri egitea ahalbidetzen digu, eta gainerako ikasleekin interaktuatzeko aukerak sortzen dira.
- Ikasturte honetan, halaber, praktiketako ikasleak eduki ditugu gure ikasgeletan, ikasturte osoan. Gure ikasleen bidelagun izan dira, eta gure ikasleekin modu aktiboan ikasi dute eta bizi izan dira etorkizunean hezkuntzako profesional izango diren horiek; guztientzat izan da aberasgarri, gure ikasleen bizi-kalitatea eta hezkuntza hobetzeko konpromisoan oinarrituta.
- Gautenaren Hezkuntza Zerbitzuak Berritzeguneren prestakuntza-eskariari erantzun dio ikasturte honetan, Gipuzkoan nahiz Nafarroan. Hala, prestakuntza eman da ikasgelan lan egiteko metodoen (TEACHH) eta AENA duten haurrei hezkuntza-eremuan arretaren gainean.



I. Zerbitzuak

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

- Iaz, Eguneko Arreta Zerbitzuan laukoiztu egin zen artatzen ditugun pertsonen kopurua; guztira, 110 pertsonari lagundu genien. Era berean, zerbitzua eratzen duten profesionalen kopuruari dagokionez, gaur egun 29 hezitzaile daukagu lanaldi osoan. Zerbitzua zentroka banatzen da, aurreko urteetan bezalaxe; Artolamendiko, Bentaberriko eta Oriamendiko zentroetan garatzen jarduten dugu, baita Errenteriako unitatean ere.
- Profesionalen artean, Agustín Illera aipatu beharra daukagu, Eguneko Arreta Zerbitzuko arduraduna, erretiro partzialari heldu baitio gurekin hogeitau urte baino gehiago lanean egin ondoren. Gaur egun, lotura dauka GAUTENArekin, kalitateko eta antolaketa-garapeneko arduraduna da-eta.

Era berean, Ana Balenciaga nabarmendu behar dugu, Eguneko Arreta Zerbitzuko hezitzailea; izan ere, gurekin hogeitau hamar urtetik gora egin eta gero, erretiroa hartu du. Lerro hauen bidez, biegi eman nahi dizkiegu gure eskerrik beroenak, urte askotako lan gogor eta azpimarragarri horrengatik. Onena opa diegu etapa berrirako.

- 2017an, Irene Zendoia Bartzelonara joan da familiarekin bizitzera. Bentaberriko unitatean ematen genion laguntza, eta zortetik onena opa diegu Katalunian hasiko duen biderako. Bestalde, zoritxarrez, Maria José Elorzaren heriotza eduki dugu. Haren senideei, gure doluminak. Azken urteetan, ez zuen Eguneko Arreta Zerbitzua erabiltzen, Gipuzkoatik kanpo bizi baitzen, baina hogeitau urte baino gehiago egin zituen gurekin GAUTENAn.



Agustín Illeraren eta Ana Balenciagaren agur samurra.

- Esku-hartzearen arloan, eta 2016an Plena Inclusión elkartearekin hartu genuen konpromisoarekin jarraituz, GAUTENAn laguntza aktiboaren metodologia ezartzeari, garatzeari eta ebaluatzeari dagokionez,

hobekuntza-talde bat sortu da, erakundeko hainbat profesionalaz osatua, eta prestakuntza eman zaie FEVASeko zenbait erakunderi, Plena Inclusión elkarteko teknikarien laguntzarekin. Metodologia hori



ikuspegi giltzarria da gure pertsonak beren bizitzetan parte hartzea eta bizi-kalitatea hobetzea sustatzeari begira.

laz garatutako jardueren artean, hainbat taldek bi kontzertutan parte hartu dutela azpimarratu behar dugu. Euskadiko



Orkestra Sinfonikoarekin batera aritu dira, Soinuen Mosaikoa ekimenaren barruan. Bestalde, Tennis Elkartea Errealera aldizka joaten jarraitu dugu, eta, bertan, tenisean jardun dira talde batzuk, klubeko begiraleekin batera. Modu berean, eta 2016an hasitako ekimenarekin jarraituta, Aieteko unitateko talde bat aldizka joaten da Aranzadik Miramonen dituen instalazioetara, askotariko lanak egitera. Azkenik, nabarmentzekoa da hainbat taldek KIABIk antolatutako moda-desfile batean parte hartu izana.

Dakizuenez, iaztik talde klinikoko psikologo baten laguntza ematen ari da zentroetan eta arreta-unitateetan, gure laguntza jasotzen duten pertsonen jarraipena egiteko xedez. Lan handiko lehenengo urtea igarota,

balorazioa oso positiboa izan da, kasuak hobeto jorratzea eta pertsonen egokitutako esku-hartzea egitea ahalbidetu baitigu.

Guztira, hainbat prestakuntza-zentroetako eta askotariko titulazioetako hogeit hamar ikasle eduki ditugu praktikak egiten, bai zentroetan, bai eguneko arreta-unitateetan, eta ikasleek beraiek nahiz prestakuntza-zentroetako arduradunek egin dituzten balorazioak benetan onak izan dira.

Etorkizunari begira, gainerako eskualdeetara iristeko erronka dauka zerbitzuak aurrez aurre, Donostialdeakoak ez diren pertsonentzat irisgarriagoak izan gaitezten. Halaber, lan gogorra egiten ari gara gure programak berritzeko orduan, gure pertsonen premiei eta interesei egokitzeko asmoz.



I. Zerbitzuak

ETXEBIZITZA ZERBITZUA

■ Hasteko, urte amaieran plazak areagotu direla adieraziko dugu; zehazki, 2017ko abenduaren eta 2018ko urtarrilaren artean, 8 pertsona berri sartu dira zerbitzuan. 2011n ireki zen azken aldiz izangaien zerrenda, eta, orduetik, izugarri hazi da.

Zalantzarik gabe, kopurua handitzeak duela zazpi urte egin genuen aldarrikapen garrantzitsuari erantzun dio.

■ Plazak ugaritu izanari erantzuteko, Berioko etxebizitza erabili da. Dakizuenez, bizileku etengabea edukitzeko erabiltzen zen orain arte etxebizitzetako bat, eta erakundeko



haurrek eta gazteek aldi baterako egonaldiak egiteko erabiltzen zen beste etxebizitza bat. Bada, hortxe kokatu dira plaza berriak, eta, beraz, bizileku etengabea izatera igaro da Berio, oso-osorik.


■ Era berean, adierazi beharra dago asteburuetan etxebizitzetara joaten ziren bost familietatik lau sartu direla esleitutako plaza horietan.

■ Bestetik, zerbitzua handitu egin denez, profesionalak hautatu ditugu, eta, ondorioz, hamaika pertsona sartu dira zerbitzuan.

Langile guztiek daukate eskarmentu handia gure erakundean, eta, hortaz, gure etxebizitzetan laguntzeko ezagutza eta profil egokiak daukate.

■ Gaur egun, 76 profesional daukagu Etxebizitza Zerbitzuan, honela banatuta:

■ Azkenik, profesionalen atalean, garrantzitsua da lanposturako ziurtagiria lortzeko egin duten ahaleginari aitortza egitea; izan ere, administrazioak ziurtagiri bat eskatzen die, dekretuz, etengabeko bizilekua eskaintzen duten erakundeei. Langileen ehuneko ehunak lortu du gaikuntza.



Etxebizitza	Guztira	Emakumeak	Gizonak
ORIAMENDI	13	5	8
AZKORTE	11	8	3
GOIZALDE	11	8	3
BERIO	11	6	5
TXARA	9	8	1
ZARATEGI	6	3	3

- Zerbitzuaren atalik adierazgarrienetako, inolako zalantzarik gabe, etxebizitzetan egiten eta programatzen diren aisialdi-jarduerak dira.
- Aisialdi-jarduerak: aisialdia betetzea da gure xede nagusietako bat; urteak daramatzagu pertsonen askotariko premiei eta interesei tokia egiteko programak antolatzen. Komunitatean antolatzen diren jardueretan dugun parte-hartzea finkatu dugu; hala nola, kirolean, eskulanetan eta informatikan. Pertsonak egiten dituzten hautuak gero eta zehatzagoak dira, eta asebetetze-maila oso altua agertzen dute eskainitako jarduerak egitean. Laguntza-
 behar handiagoa duten pertsonentzat, etxebizitza bera arduratzen da taldeak nahiago dituen jarduerak eskaintzeaz. Bestetik, piraguismo-jarduera berezia antolatzen jarraitzen dugu uztailean, Kontxa hondartzan.
- Jaiegunetako jarduerak: asteburuetan eta jaiegunetan, komunitatean egiten ditugu jarduerak, etxebizitza bakoitzak proposatzen dituen toki eta ekitaldi sorta handiarekin.
- Osasun-arloan egiten den jarraipena eta ematen den arreta ere nabarmendu nahi ditugu. Alde batetik, pertsona bakoitzak behar dituen zainketa pertsonalizatu

ETXEBIZITZA	ESKU-HARTZEA
ORIAMENDI	Jarduerak egiteko prestatu dugu lorategia.
	Sukaldeko eta garbitegiko etxetresna elektrikoak berritu ditugu.
	Egongelako altzariak berritu ditugu.
TXARA	Logeletako kaxa elektrikoak berritu ditugu.
	Eskudelak jarri ditugu korridoreetan.
	Logelak eta egongelak margotu ditugu.
	Garbitegiko etxetresna elektrikoak berritu ditugu.
ZARATEGI	Garbitegiko etxetresna elektrikoak berritu ditugu.
URNIETA	Etxetresna elektrikoak berritu ditugu.
GOIZALDE	Aireztapenerako etxetresna elektrikoak erosi ditugu.
	Koltxoiak eta oheak berritu ditugu.
BERIO	Koltxoiak eta oheak berritu ditugu.
	Zeramikazko lurra aldatu dugu.
	Biltegia handitu dugu.

I. Zerbitzuak

banakako jarraipena egiten da, eta, bestetik, prebentzio-alderdiak daude. Prebentzioaren bidez, dietak eta elikaduralerroak gainbegiratu eta kontrolatu dira, oraingo eta etorkizuneko osasun-baldintzetan eragiten dute-eta. Analitiken eta kontsulten bidez ezartzen ditugu jarraipen-protokoloak, pertsona guztien osasuna hobeto kontrolatu laguntzen baitigute.

■ Nabarmentzekoa da, halaber, Vic-eko Unibertsitatearekin hasi dugun harremana. Eskubideak gauzatzeko eredu eskaintzen dugu erakunde horren master-programaren barruan, eta, urtero, ikastaro horretako ikasleen bisita izaten dugu.

■ Instalazioen zaintza eta mantentze-lanak dira gure erronka garrantzitsuenetako bat, eta, aurten ere, hainbat hobekuntza egin ditugu etxebizitzetan:



Gautenaren etxebizitzako gazteak, Soinuen Mosaikoan parte hartzen.

FAMILIEI LAGUNTZEKO ETA ELKARTZE EKINTZAKO ZERBITZUA

■ GAUTENAKo Familiei Laguntzeko eta Elkarte Ekintzako Zerbitzuko profesionalen taldea handitzen ari da, eta oso albiste ona da hori, hobetu garatu ahalko ditugulako irekita dauzkagun askotariko jarduera-ildoak. Azken hiruhilekoan, Maialen Arrastia taldera sartu da, lanaldi partzialean, batez ere aisialdiko eta denbora libreko jardueraz arduratzeko.

Bada, Familiei Laguntzeko eta Elkarte Ekintzako Zerbitzuko taldea honela eratuta geratu da:

* **JIMMY BROSA:** *Familiei Laguntzeko eta Elkarte Ekintzako Zerbitzuko arduraduna.*

* **AINARA SANZ:** *Gizarte-langilea; batez ere, Atsedeen programaz eta gizartelaneke eremuaz arduratzen da, familiak orientatuz.*



* **GARBIÑE GOIKOETXEA:** Psikologoa; beste zeregin batzuen artean, Gertu programa eta laguntza-behar txikiak dauzkaten pertsonen arreta eta jarraipena koordinatzen ditu, Hezibide eta Lanalde programen bidez.

* **MAIALEN ARRASTIA:** Batez ere, Gautenak eratzen dituen aisialdiko taldeen jarduerak antolatzeaz eta horien jarraipena egiteaz arduratzen da.

■ Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuak esku hartzeko ildo asko jorratzen ditu, eta horietako batzuk nabarmendu nahiko genituzke. Hezibide programa asko ari da hazten; zorionez, AENa duten gero eta ikasle gehiago iristen dira goi-mailako ikasketetara, unibertsitatera eta Lanbide Heziketara. Hezkuntzan orientatzeko programa horri esker, ikasle askori lagundu diezaiekegu orain arte horrelako ezaugarriak zituen ikaslerik ez zeukaten zikloetan.

■ Bestetik, datuek adierazten digutenez, lan-eremuko orientazioaz eta segimenduz arduratzen den Lanalde programa datozen urteetan oso garrantzitsua izango da erakunderako. Horretarako, Gureak elkartearekin daukagun harremana sendotzen ari gara Gautenaren ingurukoak diren eta bere zentroetan dauden pertsonen segimendurako. Gainera, geure burua trebatzen eta Gipuzkoatik kanpo garatzen diren ekimen berriak ezagutzen ari gara.

■ Atsedeen programak kokalekua aldatu du aurtan. Berioko unitatea ireki denez, bizileku etengabea izateko, Pagola auzoko etxebizitza batean garatzen da Atsedeen programa, aldi baterako.

■ 2017an, Zarautzen egin dugu URDINDUZ festa. Zarauzko Udala asko inplikatu zen martxa antolatzen, eta egun arrakastatsua izaten lagundu zuen horrek, jende ugari hurbildu eta giro aparta sortu baitzen.



Arrakasta 2017ko Urdinduz jaietan, Zarautzen.

I. Zerbitzuak

- Jarduerak eta guneak antolatzen jarraitzen dugu, Gautenako familiak elkartu eta uneak parteka ditzaten. Hainbat mendi-irteera egin ditugu, bai eta topaketak (Txiki Parkean) eta San Tomas festa antolatu ere.
- Gipuzkoako udalek eta administrazioek diru-laguntzen deialdien bidez ematen diguten laguntza nabarmendu nahi genuke. 2017an, Gipuzkoako Foru Aldundiaz gain (Gizarte Politika Sailaren eta Gazteria eta Kirol Sailaren bidez), Donostiako (Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza sekzioen bidez), Hernaniko, Zumarragako, Arrasateko, Astigarragako, Oñatiko, Urretxuko, Zumaiaiko, Zarauzko, Aretxabaletako, Errenteriako, Andoaingo, Elgoibarko,

Billabonako, Eskoriatzako, Irungo, Eibarko, Hondarribiko eta Lasarteko Udalen diru-laguntzak eduki ditugu.

- Pertsonen emandako laguntza kontuan, eta Maialen taldean sartu izanari esker, azpimarratu behar da Gizarte Integraziorako eta Parte-hartzeko jardura guztietan (aisialdia eta denbora libre) eman den garapena, laguntza-premia ezberdinak dituen geroz pertsona gehiagorengana eta toki gehiagotara iritsi izan baita. Antzerki-jardura nabarmentzen jarraitzen dugu, aurten ere sekulako arrakasta izan baitu. Oraingoan, gainera, antzezlan onenaren saria irabazi du Donostiako Gazteen Antzerki Topaketan.



Gure igeriketa-taldea, Marea Urdina babesten.

Halaber, Gautenako kirolariek kirol-jardueretan (igeriketan, batez ere) gero eta parte-hartze handiagoa dutela azpimarratu nahiko genuke.

- Komunikazioari dagokion guztian, zerbitzu honek ere jorratzen bai baitu, hobekuntzak oso adierazgarriak ari dira izaten.

Familiekiko komunikazioa hobetzen ari da, astero posta elektronikoz eta WhatsApp bidez bidaltzen diren aldizkari informatiboekin. Gautenak sare sozialetan (Facebook, Twitter eta Instagram) gero eta presentzia handia edukitzea gehitu behar diogu horri. Web-orri berriak garapena-akera berriak eskainiko dizkigu laster.

2. 2017. Urteko Mugarriak



Urtarrila

Soinuen mosaikoa

Prestakuntzan urtebete egin ondoren, hainbat tailer eginez, Gautenako hainbat gaztek Soinuen Mosaikoan hartu zuten parte. Estatu-mailako bizipena izan da, desgaitasuna duten pertsonen orkestra sinfonikoekin batera hainbat kontzertutan parte hartu dutena. Guk Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin partekatu ahal izan genuen esperientzia, Donostiako eta Gasteizko kontzertuetan. Horietan, Emilio Aragónen La flor más grande del mundo lana interpretatu genuen.



Soinuen Mosaikoko parte-hartzaileak

Otsaila

Aspergerren Sindromearen Nazioarteko Eguna

Otsailaren 14an, Aspergerren Sindromearen Nazioarteko Eguna ospatu genuen. Gautenako psikiatra, Ignacio Gallano doktoreak hitzaldi bat eman zuen Gautenako familientzat: «ASPERGERREN SINDROMEA: Teoriatik praktikara, praktikatik gure esperientziara». Aspergerren sindromea duten gazteen talde batek, gainera, jada ohikoa bihurtu den ospakizun-afaria egin zuen.

GAUTENAKo familiek parte hartu zuten ikerketa-proiektu batean, BCBL zentroarekin.

2017an 18 eta 24 hilabete arteko seme edo alabaren bat zuten Gautenako familiek eta autismoa duten haurren anai-arrebek parte hartu zuten BCBLren (Basque Center on Cognition, Brain and Language) ikerketa batean, ikertzaile amerikar batek koordinatuta.



BASQUE CENTER
ON COGNITION, BRAIN
AND LANGUAGE



2. 2017. Urteko Mugarriak

Anai-arrebentzako tailerra.

Aurreko urteetan bezala, anai-arrebentzako hainbat tailer egin ditugu, arrakasta handiz. Autismoa duten haurren anai-arrebentzako tailer horietan, beren esperientziak partekatzen dituzte haurrek, eta anai-arrebak hobeto ulertzen laguntzen dien gune bat izaten dute.



Anai-arrebentzako tailerra



Martxoa

Txuri Urdin

Beste urte batez, izotz gaineko patinajeaz hasteko aukera eman zigun Txuri Urdin Izotz Jauregiak; esperientzia zoragarria izan zen. Gautenako familia ugari hartu zuten parte, eta saio itzel hartaz gozatu. Aukera zoragarri hura eman izana eskertu nahi diogu Txuri Urdini.





Frantziako Kontu Auzitegiaren bisitaldia

Gautenak urtean zehar jasotzen dituen bisiten artean, Frantziako Kontu Auzitegiak martxoan egin ziguna nabarmendu nahi dugu. Gure eredia partekatzeko baliatu genuen unea, Gipuzkoako Foru Aldundia lagun.



Logo berria

Aurten, GAUTENAK irudia aldatu du. DIMENSION publizitate-agentziarekin lankidetzan arituta, hainbat eguneraketa egin ahal izan ditugu gure logoan, webean... Erakundearen giza ardatza gailendu nahi du logo berriak, erdigunean pertsona jarriz, familiaz, lagunez eta ingurukoez inguratua.



Web-orria ere berritu dugu, garai berrietara hobeto egokitzeko.



2. 2017. Urteko Mugarriak

Deskonektapp

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika Sailarekin elkarlanean, eta DIMENSION agenziaren laguntzarekin, Gautenak bere lehenengo aplikazioa sortu du: Deskonektapp. Oro har, sare sozialen eta, zehazki, mugikorren erabilera arduratsu eta egokia sustatu nahi du aplikazioak.



Urdinduz – Zarautz

Aurtengo Urdinduz Zarautzen ospatu dugu. Aurtengo edizioan Zarautzko Udalaren laguntza eta inplikazioa izan ditugu, eta oso edizio arrakastatsua izan da. Aurten, Autismo Europa elkarteak Autismoaren Nazioarteko Eguna ospatzeko erabili zuen leloa hartu dugu: «Apurtu ditzagun hesiak autismoaren alde».




Jende-oldea Urdinduzen.



Maiatza

Irakurketa errazerako kluba

2017an, IRAKURKETA ERRAZERAKO KLUBA garatzen hasi gara. Gipuzkoako IRAKURKETA ERRAZA elkartearekin lankidetzan, irakurketa errazerako talde bat abiatu dugu; bi tailer egin ditugu, eta bi liburu irakurri. Tailerrak Donostiako Ernest Lluch liburutegian egin dira.



Irakurketa errazerako kluba

Musik herria – Tolosa

Bigarren urtez jarraian, Laskorain ikastolak Tolosako Musikherria egunean antolatutako paella-bazkarian ateratako etekinak Gautenari eman dizkiote. Familiak eta profesionalak ere festara joan ziren.



*Gautenaren agerraldi ederra
Tolosako Musikherrian.*



2. 2017. Urteko Mugarriak

Artea eta giza eskubideak saria.

Beste behin ere, Gautenako ikasleek sari bat irabazi dute Donostiako Udalak artearen eta giza eskubideen inguruan antolatzen duen lehiaketan.



Gure txapeldunak!



Ekaina

Gazteen Antzerki Topaketaren saria

ATENEASP Gautenako antzerki-taldeak lehen aldiz hartu du parte Donostiako Udalak gazteentzat antolatzen duen antzerki-lehiaketan. Estreinaldia ezin hobea izan da, lan onenaren saria jaso baitzuten. Zorionak!



Txapeldun gehiago!



Uztaila

Gautenaren udaleku irekiak

Uztailan zehar, GAUTENaren Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuak Udaleku Irekien Programa antolatu zuen. 65 haur eta gaztek hartu zuten parte, 35 monitoren lagundurik. Programa Donostian, Irunen, Hondarribian, Andoainen, Zarautzen, Arrasaten, Elgoibarren eta Zumarragan gauzatu zen.



Abuztua

Udalekuak

Abuztuan zehar GAUTENaren Familiei Laguntzeko eta Elkartze Ekintzako Zerbitzuak Udaleku Programa antolatu zuen, eta 125 haur, gazte zein helduk hartu zuten parte, 87 monitoren lagundurik. Programa Donostian, Donezteben, San Asension eta Lizarran gauzatu zen.

Egoitzetan plaza gehiago ireki abuztuan

Udan plaza gehiago ireki ahal izan genituen egoitzetan. 2017an, abuztuan, etxebizitza-plazen ia erdiak ireki ziren.



*Oriamendiko etxebizitza, urteko
365 egunetan zabalik*



2. 2017. Urteko Mugarriak



Juan Carlos Irizarren abestia

Gautenaren antzerki-taldeak lagun berri bat dauka, Juan Carlos Irizar, eta pare bat emanalditan aritu da harekin lanean. Juan Carlos lagunak abesti bat konposatu eta eskaini digu azken diskoan.



Eskerrik asko, Juan Carlos!

Ondarretako ikasgelaren irekiera

Irailean, beste ikasgela bat ireki zuen Gautenaren ikasgela egonkorren sareak. Oraingoan, Andoainen egin du, Ondarreta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoan. Hala, Gautenak 19 ikasgela egonkor kudeatzen ditu Gipuzkoako eremuan.





Andorrako Gobernuaren bisita

Urrian, Andorrako Gobernuaren ordezkariak batek, profesionalak, senideak eta politikariek osatua, Gautena bisitatu zuen, AENA duten pertsonentzako zerbitzuen kudeaketan eredu izateagatik.



Andorrako ordezkariaren bisitaldia

Irisgarritasun Kognitiboaren Biltzarra

Plena Inclusión elkarteak Cáceresen antolatutako Irisgarritasun Kognitiboaren Biltzarrean egon ginen. Oso arlo interesgarri eta garrantzitsua da hori AENA duten pertsonentzat, eta, pixkanaka, gure zerbitzuetan sartzen ari gara.





2. 2017. Urteko Mugarriak

Autismo Europako Administrazio-kontseilua


Gautenak Autismo Europako Administrazio-kontseiluak Madrilen ospatu zuen bileran parte hartu zuen, Juan Cid, Presidentea, eta iritsi berri den Zuzendaria, Amaia Lopetegi, eta irten den Zuzendaria, Ramon Barinaga, bertan zirelarik.



Ramon Barinagari sektoreak egindako agurra

Gure sektorea osatzen duten zenbait erakundeez, oso hunkigarria izan zen agur ekitaldi bat egin zuten, Ramon Barinagak Gautenan 29 urtez egindako lana eskertuz.





Azaroa

Laboral Kutxaren furgoneta

Laboral Kutxaren laguntzari esker, furgoneta berri bat erosi ahal izan dugu. Baliabide hori funtsezkoa da zerbitzuen jardunerako.



LANGILE PLANTILLA

Hau da abenduaren 31n Gautenak zuen plantilla. Hauei erretiro prozesuan dauden 7 pertsona gehitu beharko litzaizkieke:

Langile plantilla – 2017			
	Gizona	Emakumea	Guztira
Zuzendaritza	-	1	1
Teknikaria	1	10	11
Hezkuntza	9	78	87
Eguneko Jardueren Zentroa	10	20	30
Etxebizitza Zerbitzua	24	44	68
Administrazioa	-	3	3
Ofiziotzako profesionalak	1	8	9
Arduradunak	4	3	7
Laguntzako monitoreak	1	8	9
GUZTIRA	50	175	225



2. 2017. Urteko Mugarriak



Diario Vasco-ren kontzertua

EL DIARIO VASCO-ren Gabonetako kontzertuko protagonista izateko zortea eduki du Gautenak; lehen aldiz ospatu da Gipuzkoako erakunde baten alde.




Iker Mikelestorenak eta Juan Cidek jaso zuten Gautenari egindako aitortza

KIABIren desfilea

Ederra izan da KIABI arropa-dendarekin egindako lankidetzeta. Bertan, ongintzako desfile batean desfilatu zuen gazte talde batek. Gure modeloek asko gozatu zuten esperientzia polit hartan.





Beste etxebizitza bat ireki dugu

Abenduan, egoitza-unitate berri bat kudeatzen hasi da Gautena. Berrioko etxebizitzan kokatu da zortzi pertsonako talde berria. Ondorioz, senideek atsedeen hartzeko programa (Atsedeen programa) Donostiako Pagola auzoko etxebizitza berrian kokatu da.

Zerbitzuak gaur egun dituen 78 plazak honela daude banatuta:

Etxebizitza	Plazak	Emakumeak	Gizonak
ORIAMENDI	15	2	13
AZKORTE	14	2	12
GOIZALDE	14	7	7
BERIO	11	2	9
TXARA	12	7	5
ZARATEGI	8	4	4

Zuzendaritza batzordeko osaketa

PRESIDENTEA	JUAN CARLOS CID PARDO
PRESIDENTEORDEA	JUAN FELIX PALACIOS SANTAMARÍA
IDAZKARIA	BLANCA ARANGUREN OCHOTEGUI
DIRUZAINA	Batzarrak berrestear
BATZORDEKIDEAK	LOURDES LLUIS PANELLA
	PATXI AGIRRE ARRIZABLAGA
	FRANCISCO JAVIER GARCÍA
	JAVIER ORUS ITURRALDE
	JUAN CARLOS ETXEPETELEKU MINDEGIA
	EDUARDO EUGENIO ZUBIA ALFONSO
	GEMMA ARAMBURU LASQUIBAR
	CARMELE SARASOLA AGUIRREGOMEZCORTA
	JOSÉ ARRIZABALAGA LASA
	JAVIER HERRANZ GONZÁLEZ
	SUSANA LOPEZ ARZAC

3. URTEKO KONTUAK

3.1. EGOERAREN BALANTZEA

**GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN
PERTSONEN GURASOEN GIPUZKOAKO ELKARTEA)**
EGOERAREN BALANTZEA
2018ko ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA
(eurotan)

AKTIBOA	2.017	2.016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2.017	2.016
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA	3.980.154	4.183.728	A) ONDARE GARBIA	4.461.009	4.669.895
I. Ibilgetu ukiezina	615.295	670.232	A-1) Fondo propioak	289.596	303.715
III. Ibilgetu materiala	3.322.006	3.474.499	I. Sorrerako zuzkidura/Fondo sozial	303.715	298.964
VI. Epe luzeko finantza-inbertsioak	42.853	38.997	IV. Ekitaldiko soberakina	(14.119)	4.751
			A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	4.171.413	4.366.180
B) AKTIBO KORRONTEA	1.706.154	1.703.393	B) PASIBO EZ-KORRONTEA	27.559	47.250
III. Erabiltzaileak eta berezko iharduerako zordunak	77.764	73.796	I. Epe luzeko hornidurak	27.559	47.250
IV. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	449.008	424.298	C) PASIBO KORRONTEA	1.197.740	1.169.976
VII. Epe laburreko periodifikatzeak	14.787	20.849	II. Epe laburreko hornidurak	64.626	48.973
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	1.164.595	1.184.450	VI. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	991.186	1.031.816
			VII. Epe laburreko periodifikatzeak	141.928	89.187
AKTIBOA GUZTIRA	5.686.308	5.887.121	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	5.686.308	5.887.121

3.2. EMAITZEN KONTUA

GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN PERTSONEN GURASOEN GIPIZKOAKO ELKARTEA)

ALDU-IRABAZIEN KONTUA

2.017KO ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA (Euro-unitateak)

	2.017	2.016
1. Berezko ihardueraren erakundearen sarrerak	9.125.191	8.852.828
2. Laguntzagatiko gastuak eta bestelakoak	(31.168)	
7. Jardueraren bestelako sarrerak	7.496	3.121
8. Pertsonal-gastuak	(6.943.250)	(6.637.226)
9. Ustiapeneko bestelako gastuak	(2.205.692)	(2.209.883)
10. Ibilgetuaren amortizazioa	(271.454)	(289.459)
11. Ekitaldiko emaitzari egotzitako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	247.393	308.601
14. Bestelako emaitzak	32.324	13.502
A) JARDUERAREN EMAITZA	(7.992)	10.316
14. Sarrera finantzarioak		
15. Gastu finantzarioak	(6.127)	(5.565)
B) ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	(6.127)	(5.565)
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	(14.119)	4.751
D) EKITALDIKO SOBERAKINA	(14.119)	4.751





GAUTENA

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE AUTISMO
GIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA

Francisco López Alen, 4
20009 - Donostia-San Sebastián
Apartado 1.000 - 20080
Tel.: 943 21 53 44 / 717 795 144
Fax: 943 21 52 39
info@gautena.org
www.gautena.org